

## **INGURUMENAREN ARLOKO DOKTOREGO AURREKO BEKAK 2017 TATIANA PÉREZ DE GUZMÁN EL BUENO FUNDAZIOA**

### **Laguntzen ezaugarriak:**

Urtebeteko 4 kontratu emango dira, eta gehienez ere 3 urtera arte luzatu ahalko dira. Bekaren bidez, urtean 23.700 euro gordin emango dira, bekadunari ordaintzeko eta harrera unibertsitateak Gizarte Segurantzaren kuotak ordain ditzan.

### **Ikerketa ildoak:**

Proiektuok Fundazioak dituen hiru erronketako batekin egongo dira lotuta. Informazio gehiago nahi izanez gero, deialdiko oinarrietako "Helburua" izeneko atalera jo beharko da.

### **Hautagaiak bete beharreko baldintzak:**

- Espainiar nazionalitatea izatea.
- 2017ko irailaren 29an Espainiako unibertsitate bateko doktoregoko programa ofizial batera sartzeko eskakizunak betetzen dituztela frogatzea.
- Graduko unibertsitate titulu baten jabe izatea.
- Graduko ikasketetan gutxienez batez beste 7ko nota atera dutela egiaztatzea.
- Ingeleseko B2 mailaren jabe dela egiaztatzea.
- UPV/EHUko sail edo institutu baten onartuak izan direla frogatzea.

**GARRANTZITSUA:** UPV/EHUk bertako sail edo institutu batekin bat egiteko asmoa duten hautagaien eskaerei baino ez die emango bermea.

### **Zuzendariek bete beharreko baldintzak:**

Tesia zuzentzeko hautagaiak honako baldintza hauek bete behar dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzerako eta laguntzak irauten duen aldi osoan:

- Doktore titulu izatea.
- UPV/EHUrekin lotura mugagabea duen funtzionarioa edo lan kontratuduna izatea edo CSIC-UPV/EHU ikergune mistoetako ikerketa eskaletakoa izatea.
- 99/2011 EDk araututako UPV/EHUren doktorego programa bateko irakasle izatea. Esteka honetan kontsulta daiteke UPV/EHUko doktorego programetako irakasleen zerrenda:

<http://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza-ikasle-berriak>

**GARRANTZITSUA:** UPV/EHUk ez die bermerik emango baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaerei.

### **Eskaerak aurkezteko epea eta modua:**

Hautagaiak bidali behar dio bere eskaera Fundazioari, mezu elektroniko bat idatzita [becas.ambientales@fundaciontatianapgb.com](mailto:becas.ambientales@fundaciontatianapgb.com) helbidera. **2017ko irailaren 29ko 15:00ak arteko (egun hori barne) epea** izango du horretarako.

**GARRANTZITSUA:** Fundazioak ez du onartuko eskaera osatugabeak konpontzea; eskaerok zuzenean baztertuko dira.

**UPV/EHUko izapidetzea:**

UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura lortzeko, eskatzaileek "Eskaera" agiria beteta bidali beharko dute [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbidera. Postaren gaiari "Tatiana bekak: Ingurumena" aipatu beharko dute. **2017ko irailaren 12ra arteko epea** izango dute horretarako.

Egun horretatik aurrera ezingo da bermatu Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura garaiz lortuko dela.

**Harremanetarako:**

Kontsultaren bat egiteko, deitu 91.444.33.41 telefono zenbakira edo bidali mezu elektronikoa bat [becas.ambientales@fundaciontatianapgb.com](mailto:becas.ambientales@fundaciontatianapgb.com) helbidera.

**Informazio gehiago:**

<http://fundaciontatianapgb.org/convocatorias/becas-investigacion/convocatoria-becas-predotorales-medioambiente-2017/>